



OIARTZUNGO UDALA Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

Oiartzungo 2006ko Udaleku Irekien Helburuak eta Arauak (Haur Hezkuntza)

1. HEZIKETA HELBURU OROKORRAK

- Haur taldearentzat, udalekuak esperientzia alai eta positiboa izatea, hau da, haurrak udalekuetan ondo pasatzea.
- Udalekuetan aisialdi alternatiboa eskaintzea.
- Ikastetxe desberdinetako haurren artean harremanak sortzea.
- Norbere taldean eta talde osoan euskara modu jatorrean erabiltzea eta sustatzea (jolasak, abestiak, esamoldeak,...).
- Oiartzuni buruzko ezagupen fisikoa eta soziokulturala ematea.
- Burutuko diren ekintza edo jarduerekin denen partehartzea sustatzea.
- Herria eta udalekuen arteko harremana indartzea. Hau da, herrian udalekuen presentzia bermatzea.

2. HEZIKETA HELBURU ZEHATZAK

- Uztailak 3, astelehena. **Harrera eguna.**

Elkar ezagutu.

Ingurunea ezagutu.

Konfiantza edo segurtasuna sortarazi.

- Uztailak 4, asteartea. **Igerilekua.**

Leku publikoetan jokabide egokiak izaten ikastea.

Urarekin jolasean gozatzea.

Motxilan daramatzaten arropak... antolatzen ikastea.

Beraien kabuz jantzi, erantzi,... autonomia garatzea.

**Igerilekua joatearen helburuak egun guztietan berdinak direnez, astearte/ostirala, ez errepikatzearren ez dira gehiago aipatuko.*

- Uztailak 5, asteazkena. **Puzgarriak.**

Haurrek puzgarrietan gozatzea.

Psikomotrizitatea lantzea.

- Uztailak 6, osteguna. **Zentzumen txokoa.**

Haurrak, zentzumenen bidez elkar ezagutzea.



OIARTZUNGO UDALA Oiantzungo Gazteria eta Kirola Saila

Beren gorputzari buruzko jabekuntza garatzea.

Bost zentzumen ditugula ezagutzea.

Zentzumenen bidez inguruneko ezaugarriak ezagutzea.

➤ Uztailak 10, astelehena. **Murala, musika instrumentuak.**

Musika instrumentuekiko gerturatzea eta sentsibilizatzea.

Haurrak gozatzea.

Jasotako jabekuntzak mural baten bidez islatzeko gai izatea.

Murala osatzeko beharrezko psikomotrizitatea garatzea.

➤ Uztailak 12, asteazkena. **Getariako hondartza.**

Beste mota bateko natur ingurunearekin ezagupena.

Eremu desberdin honekin harremanetan jartzea.

Taldean ibiltzearen garrantzia bermatzea.

Hondarrarekin eta itsasoarekin harreman zuzena gauzatzea.

Hondarrean jolasean aritzea, manipulatzuz,...

Bakoitzak daraman motxilaren ondorioz antolaketa eta ardura pertsonala landu (bazkaria, krema, arropa,....).

➤ Uztailak 13, osteguna. **Mozorro antzerkia.**

Istorio bat modu desberdinetan jaso daitekeela ohartzea.

Ikuskizunaz gozatzea.

Aditzen ikastea.

Antzerki bat prestatzen jakitea, horrek dakarren ardura guztiekin.

➤ Uztailak 17, astelehena. **Ur ginkana.**

Ura medio haurrak elkarrekin jolastu eta gozatzea.

Talde gisa jolastea.

➤ Uztailak 18, asteartea. **Ipuin kontalaria.**

Istorio bat entzuteko gai izatea, eta disfrutatzea.

Aditzen ikastea.

Ikuskizunaz gozatzea.

Ipuin kontalariaren zeregina ezagutzea.

➤ Uztailak 19, asteazkena. **Baserria ezagutzen.**

Oiantzungo ingurua ezagutzea.



OIARTZUNGO UDALA Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

Naturaz disfrutatzea, eta hobeto ezagutzea.

Antzinako bizimodua nolako zen ezagutzea.

Baratza ezagutzea, eta baratzaz disfrutatzea.

Baratzaren inguruko informazioa jasotzea.

Aditzen ikastea.

➤ Uztailak 20, osteguna. **Altxorraren bila.**

Elkarrenganako laguntza suspertzea.

Taldekieekin harreman onak eta sendoak ezartzea.

Altxorra dela medio, jolasten ikastea.

Arauk barneratzea eta errespetatzea.

➤ Uztailak 24, astelehena. **Filma.**

Euskal mitologiaren inguruko informazioa jasotzeko modu bat ezagutzea.

Filmaz gozatzea.

Aditzen ikastea.

Filmaren dinamika eta garapean errespetatzea eta ulertzea.

Istorio berri bat ezagutzea filmaren bidez.

➤ Uztailak 26, asteazkena. **Listorretara.**

Euskal Herriko txoko desberdinen ezagupena.

Ingurugiroarekin harreman zuzena ezartzea.

Listorretan bizi diren animalien ezagupena.

Listorretan dauden lore, zuhaitz,...-ak ezagutzea.

Autonomia bultzatzea (bakarrik bazkaldu,...).

➤ Uztailak 27, osteguna. **Mozorrotuz apaintzen.**

Taldearen dinamikaren barruan integratzea.

Mozorroak sortzea eta horretaz disfrutatzea.

Apainketaren inguruko ezagutza, eta honetaz disfrutatzea.

Apainketaren inguruko esanahia izatea.

➤ Uztailak 28, ostirala. **Agurra. Begiraleen antzerkia.**

Elkar agurtzea.

Begiraleek gauzatutako antzerkiaz gozatzea.

Aditzen ikastea.



OIARTZUNGO UDALA

Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

3. GURASOEI ZUZENDUTAKO ARAUAK.

- Haurrak udalekuetara eraman eta jasotzeko ordutegia eta lekua errespetatuko da. Haurrak 9:30etan eta 13:30etan aterako dira dagokien ikastetxetik. Beraz, gogoratu! 13:30etatik aurrera gurasoen ardurapean gelditzen da haurra.
- Haurra egun batean etorriko ez bada, abisatu beharra dago.
- Egun batean, ohikotasunetik ateratako zerbait egongo balitz abisatu egin beharko da, telefonoz eta nota bidez: lehenago atera beharra,...
- Haur bakoitzak autobus jaitsiera eta igoera bakarria izango du. Hauek bakarrik aldatu daitezke dagokion begiraleari abisatuz, aurreko egunean nota baten bidez edota goizean telefonoz deituz.
- Haurrei ez zaie dirurik eman behar, ez baitute behar.
- Etxera bidaltzen diren oharrak errespetatu egin behar dira.
- Nahiz eta haurrari eguzkitako krema motxilan bidali, etxean atera aurretik ere eman behar zaio.
- Hamaiketako egunero haur batek taldekide guztientzat ekarriko du, *litxarkeriarik* ez.